# BARREN

1997ko azaroaren 14a
V. urtea - 214. zkia.

ELGOIBARKO ASTEKARIA

IRITZIA
Ion Arrieta

ERREPORWA
Errobera gaineko lanbideak

UDILIMIEUGLI
"Elgoibar, gero eta garbiago" kanpaina martxan

GEHMAIRMA
Kale zulotik baserdra

E BETARS
Mertxe Solar, Eskuz taldeko kidea

KIROLA
Behobia-Donostia lasterketako elgoibartarren sailkapena




## Errobera gaineko lanbideak

"Gustura dagoen bezeroa da negozio baten propagandistarik onena"

## ASTIGARRAGA garajea

San Frantzisko, 53
Tel: 74 01 86

# Likidazioa

- Patmak
- Motozerrak eta ordezko piezak
- Bizikletak— Kaskoak
- Motorrak — Erropa berezia
  Betaurrekoak
  Botak...

**Gabonetako opariak prezio onean erosteko aprobetxa ezazu**






## EIBAR OSASUNDEGIA

*Urkizu pasealekua, 11.*
*(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).*
*Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*
*EIBAR*

1- Alergologia
2- Kardiologia
3- Zirugia
4- Dermatologia
5- Dietetika eta Nutrizioa
6- Foniatria
7- Ginekologia
8- Laborategia
9- Barne medizina
1 0- Ortodontzia
11- Otorrinolaringologia
1 2- Pediatria
13- Psikiatria
14- Radiologia
1 5- Traumatologia
16- Urologia



ION ARRIETA

# Garai berriak direla eta

Polita izaten da adineko jendeari bere gaztetako ipuinak entzutea: Eibarrera oinez joaten zirela, ezkontza bidaia Donostiara egin zutela, Gabonetan eta jai handietan oilaskoa jaten zutela, alpargatak ez apurtzeko pelotan oinutsik jokatzen zutela,... Guretzako ipuin zaharrak dira.

Gure seme-alabek, berriz, harritutako aurpegiaz begiratzen digute kontatzen diegunean nolakoa zen gure etxean sartu zen lehenengo telebista edo butanozko sukaldea, telefonoa etxe gutxitan zegoela, etxe zaharretan dutxarik ez zegoela,...

Batzuetan konturatzen ez garen arren, gauzak egunero aldatzen ari dira. Hona azkenengo hilabeteotan ustegabean harrapatu gaituen hainbat gertakizun: autoen antzeko ibilgailu batek soinuaren abiadura (1.200 km/orduko) Iortu du, ordenagailuak 6 hilabetetan zahartu egiten dira, etxe askotan telefono erantzungailuak erabiltzen hasita daude, telefono mugikorrak txikiteoan ikusten hasi dira, gero eta jende gehiagok erabiltzen du Internet, etab., etab.

**"Euroarekin zerbait erostera joaten garenean, merkea edo garestia den konturatzeko, hainbat kalkulo eta konparaketa egin beharko ditugu"**

Zer-nolako aurrerapenak egongo dira hurrengo 30 urteetan? Zer ipuin zahar kontatuko diete gure seme-alabek euren seme-alabei?

Teknologiaren aurrerabideak eta aurrerabide horiek gure bizimoduan ekarriko dizkiguten eraginak asmatzea ez da erraza.

Dena dela, eta etorkizunak ekarriko dizkigun gauza berrien asmakizunak alde batera utzita, badago laister batean buruhauste handiak ekarriko dizkigun beste gai bat: pezetaren desagertzea. Lau urte barru, 2002 urteko urtarrilaren lean Europako dirua, Euroa, eskuratu ahal izango dugu edozer salerosketatan erabiltzeko, eta urte hartako uztailaren lean pezeta desagertu egingo da, oraingo planak aldatzen ez badira behintzat.

Erosten ditugun gauza arrunten prezioa jakinean daukagu pezetatan. Baina gure seme-alabek 4,60 Euro eskatzen digutenean igandeko paga bezala, edo dendan ofertan dagoen olioak 2,16 Euro eta ogiak 0,63 Euro balio dutela esaten digutenean, edo tabernariak 0,78 Euro eskatzen digunean edandako txikito bereziarengatik, zer-notako aurpegia jarriko dugu?

Urte batzuetan zerbait erostera joaten garenean, merkea edo garestia den konturatzeko, hainbat kalkulu eta konparaketa egin beharko ditugu. Europako ekonorniarentzat ona izango omen da, baina gure etxeko ekonomiaren kontrolerako zoramen izugarria izango dela ziur nago.

Eta gainera, gure bllobek 30 urte barru barre egingo digute egun batean Euroak ekarri zizkigun arazoengatik!

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
1174 41 12
**Publizitatea:**
ir 74 37 04
**Faxa: 74 37 04**

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Ainhoa Lodoso |
| ENREDAKZIO KoNTSEN.uA | Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria |
| KAZETARIAK | Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro |
| PuBLIZITATEA | Miren Moreno |
| MAKETATZALLEA | Mikel Cornejo |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| | M. Angeles Ortuoste, Rala Alvarez |
| KOLABORATZAILEAK | Irati Agirreazakiegi, Gemma Agirregomezkorta, itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M, Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane GuillO, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrafiaga, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta |
| BANAKETA ANDuRADUNA | IMBROILarrarlaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRAGA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1133-021X |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



111 3 _ [1] fundazioa fundaci6n

ffiDANOBAT
MACIUMAS HERRAMIENTA

/es GO 1T 11
OBU PO DANOBAT


# ESKUT1TZAK

## Lagun bati

Zenbat hitz gelditu zaizkigun elkarri esateko...!

Kristalaren bestaldetik ikusi zaitudanean, denak batera eta nahasian etorri zaizkit eta ez nuen asmatzen nola ordenatu, hainbeste alditan izan ditugun benetako solasaldi horietako bat burutzeraino.

Barnean daramadan estuasun larri honek itotzen nauelako, gau busti ilun honen magaletik eta boligrafoa lagun, denak kanporatu nahi izan ditut, banaka-banaka eta ilaran, guztiak ongi loturik, adierazi nahi nizun guztia osatzeko. Eta esateko zeuden hitz guzti horiek, bapatean, "BAT" bihurtu zaizkit. BAT sendo eta mamitsua: Eskerrik asko, Sera, guztiaren gainetik, zenuen bihotz zabal eta umoretsu horrek pasarazi dizkigun momentu on guztiengatik. Eskerrik asko eskaini diguzun adiskidetasunagatik eta beti "hor" eta "edozertarako" prest egoten jakin izan duzulako.

Abestiak dioen bezala, zerbait galtzen omen da arima barnean lagun bat joaten denean eta horrela gertatu zait gaur niri, Sera, baina badakit utzi dizkiguzun oroitzapen guztiek arinduko dutela samin hori eta lagunduko digutela aurrera egiten zuk zeuk aldarrikatuko zenukeen bezalaxe.

Zauden tokian zaudela, ziur naiz elkartzen garen egunean irrifarre goxo batez hartuko nauzula eta horrek indarberritu egiten nau.

Agur, Sera, muxu haundi bat eta ordura arte.

**I.A.**

## Edukia ez dela irakurtzen?

11 Astekaria gure etxeetara du eta hurrengo egunetan denek argazkiaren gora-beherak aipatzen dizkigute, edukinaz galdetzerakoan, aldiz, "oraindik" inork ez duela irakurri ohartzen zara, asti falta omen. (...). Beraz, inork irakurri behar ez duena zertarako idatzi?". HorreIa zioen Mari Angeles Expositok joan den asteko BARRENeko `iritzia' atalean. Honen aurrean pare bat gauza esan nahi nituzke:

1- Egia da atentzioa argazkiek deitzen dutela eta lehenengo horietara jotzen dugula begirada. Egia da, baita ere, jende ezaguna aldizkarian ikusteak kuriositatea sortzen duela.

2- Baina, era berean, edukia inork ere irakurtzen ez duenik ez dut uste egia denik. Mari Angelesen artikulua irakurri nuelako nago honako eskutitza idazten. Eta ziur naiz beste asko daudela astero-astero atal bat edo beste, gutxienez, irakurtzen dutenak. Nik, behintzat, BARRENi esker, euskaraz irakurtzeko ohitura hartzen ari naizela esan dezaket. Gainontzeko egunkariek lortu ez dutena lortu du herri aldizkari honek, argazkien eta testuen bidez gertu-gertuko gaiak landuz.

**A.E.**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazilakoen erantzukizunik.

# GALDERAK

• Emakume bat etorri zaigu galdera hau egiteko: "Sarritan **joaten naiz Madalatik King-Kong-eko autobus gettokira ibai aldeko bidetik, errepide bazterretik. Oinezkoentzako bidea dago baina eguraldi kaxkarra egiten duenean, orain bezala, bidea putzuz eta lokatsez betetzen da. Udalari galdetu nahi diot ea ez al duen bide hori asfaltatzeko edo besterik ez bada ere, apur bat txukuntzeko agnorik. Pilarretik Txankakuara bitarteko bidean, adibidez, espaloia dago, benetan txukuna. King-Kong-eko geltokirako bidea, ordea, ez. Zergatik?".**

Udal Hirigintza Saileko burua den Jose Mari Oruesagastiri luzatu diogu galdera eta hara hemen bere erantzuna: "Orain arte ez dou Udaletxian bide hori konpontzeko eskaerarik jaso eta horregatik asrno inmediatorik ez dao. Hala ere, kontutan hartuko dou eta zerbait eingo da bidia txukuntzeko".

# KEXAK

• Gazte batzuk honako kexa hau ekarri digute: "San Roken, Arreiturre eta **kuartel zaharraren inguruan ez dago iturririk.** Askotan eskatu dugu iturria jartzeko baina inork ez digu kasurik egiten. Bada ordua iturria jartzeko, ez?"

• **"Usetexe kaleko alkantarilako estalkia puskatuta dago** orain dela zazpi-zortzi hilabetez geroztik. Bizilagunak **lau aldiz joan gara udaletxera,** azkenengoan Hirigintzara bialdu gintuztelarik. Baina **inork ez du erantzukizunik hartzen eta kalea xaguz betetzen ari zaigu.** Nork hartu behar du ardura?"

# BA ESAN?



400000[1111].1[1]

**lopea Vilia**

Udal Ongizate Saileko arduraduna

Aste honetako telefono deia **Udal Ongizate Saileko arduraduna den Lorea Vilari** luzatu diogu. Izan ere, aurreko astean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Elkarteko pobreziari buruzko datuak kaleratu zituen. Datu kezkagarriak eta penagarriak ere bai kasu askotan. Elgoibarren pobrezia zein neurritakoa den jakin nahi izan dugu,

**- 40.000 familia pobrezia gorrian bizi omen dira Euskal Autonomi Elkartean. -** Ongizate Sailean dauden datuak aztertuz pobrezia gorrian bizi diren biztanleak daudenik ezin dugu esan. Pobrezia gorrian egotea mota guztietako errekurtso edo baliabideen urritasuna izatea bada behintzat. Une honetan, ez dugu uste pobrezia hitza egokia denik, nahiz eta pobreziarako dirulaguntzak atera zirenean definizio hori ona izan. Gure ustez, azken urteetan pobreziatik "gizarte esklusio" kontzeptura heldu gara. Gizarte esklusiotzat zera ulertzen dugu: gizarte eskubideak osoki "erabiltzeko" ezintasuna. Bereziki lanerako eskubidea, baita ere hezkuntza, formazioa, kultura, osasuna, etxe egoki bat eta gizarte zerbitzuetarako eskubidea.

**Zein da Elgoibarko egoera? Ba al dago goserik pasatzen duen familiarik? -** Elgoibarren pobreziaren aurkako plana martxan jarri zenetik, prestazio ekonomiko hauek jasotzen dituzten pertsona motak guztiz aldatu dira. Hasiera batean pertsona eta familia hauen ezaugarri nagusia pobrezia eta bazterketa bazen ere, momentu honetan langabetu eta emakumeak dira onuradun nagusiak. Kontuan izan behar da normalean erantzukizun familiarrak eta diru sarrera urriak izaten dituztela eta, beraz, pobreziako planak ezartzen dituen barernoetan sartzen direla.

**- Zein laguntza mota jasotzen dute pobreek? Zeinen eskutik jasotzen dute? -** Laguntza ekonomikoez hitzegiten dugunean, bi motatakoak daudela esan dezakegu. Alde batetik, etxeak dakartzan gastuei aurre egiteko daudenak. Eta bestetik, janaria, erropa, eta eguneroko gastuentzako daudenak. Kontuan izan behar da dirulaguntza hauek oso txikiak direla, pobrezia terminoetan baitaude planteatuak baina, ez da ahaztu behar, beste mota batzuetako laguntzak ere eskaintzen direla, formazio mailan, familiei aholku programak eta abar. Laguntza gehienak Udaletxetik gestionatzen dira nahiz eta finantziazioa Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik etorri.



*I. URTEURRENA*

*1996ko azaroaren 16an, 67 urte zituela hil zen*

*MODESTO MUJIKAren oroimenez*

*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian azaroaren 15ean, larunbata, arratsaldeko 7etan. joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# Errobera galeko .anbldeak


*Vieente Cunehillos Eroskiko banatzailea da.*

***Errobera gaiinean dablltza egun osoa. Autoa edo motorra beharrezkoa dute lanerako. Izan ere, paketeak aide batetik bestera, etxe partikular edo enpresetara eramatea da euren betebeharra. Mezulariak eta banatzalleak dira. Gaur egun negoziioetan oso garrantzi-tsua da bezeroari etengabeko harreta eshaintzea eta produktuak lehenbailehen fristea. Horrez gaiin, etxetik bertatik edozer erosteko aukera daukagu: diskak, Hburuak, arropa... baita jatekoa ere. Erosotasunah eta denborak agintzen duen honetan, errobera gaineko ofizioak ugarituz doaz.***

## Mezulariak

Unai Muguruzak bere anaiarekin orain dela sei hilabete Estatu mailan funtzionatzen duen mezulari enpresa handi baten ordezkaritza zabaldu zuen Elgoibarren, Halcourier, "bizkarhezur indartsu baten hezurtxo bat gara. Estatu mailan 160 ordezkaritzatik gora daude". Anaia biak hasi ziren eta gaur egun bost pertsona ari dira lanean. Eurek erosi zituzten hasieran furgonetak, "inbertsioa egin behar izan gendun. Baina ezin gera kexatu, gauzak ondo atera dira eta horregatik beste hiru pertsoneri eskeini genien gurekin lan eitxia". Unaik azaldu digunez, "Estatuko alde guztietatik ailegatzen jaku merkantzia. Madrideko zentralera ailegatzen da dana eta handik banatu eitxen debe sukursal desherdinetara. Goizeko 8etarako hemen egoten da dana eta, suposatzen da, loetarako banatu bihar dogula". Normalean inguruan mugitzen diren arren, tokatu izan zaie urrutirago joan beharra ere, "Alemania aldera edo". Unaik esan digunez, lan honetan dabilenetik errepide asko eta asko ezagutu ditu, "tokixak ez ditxuzu ixa ezautzen ze paketia banatu eta bueltau ein bihar zera baina karreteran zaude egun osua eta danetik ikusten dozu". Unaik inoiz izan izan du susturen bat edo beste, baita kolpe txikiak ere, "baina holako lan batian gauzarik normalena da".

Elkarrizketara telefono mugikor batekin azaldu da, "gure lanerako biharrezkua da, ze edozein momentutan jaso dezakezu abisu bat". MadriIetik iristen zaiena banatu eta hemen jasotakoa Madrilera bidaltzen dute, "bitartekarixak gera. Madrid da zentrua eta handik hona eta hemendik hara bialtzen da merkantzia. Gu merkantzia atTatsaldeko 7ak baino Iehen jaso eta hurrengo eguneko goizeko lOak baino lehen Espainiako edozein puntutan banatzera konprometitzen gera".

Mezularien zerbitzuak izugarri ugaritu dira azken urteotan. Izan ere, Unaik esan bezala, "jendiak, bixarko gauzak atzoko nahi izaten ditu. Hau da, lehenbailehen". Lanbidea gustatzen zaio, "kotxian gustora ibiltzen naiz. Hori bai, astebukaeran ez dot nahi ez kotxerik ez teIefonorik".


*Unai Muguruzak duela sei hilabete mezulari enpresa jarri zuen martxan.*



Ekaitz Isasik hiru hilabete egin zituen Piloneko *banatzaile lanean.*

## Etxez etxeko banaketa

25 urte dituen gazte eIgoibartar hau duela pare bat hilabete hasi zen lanean Eroskin. Vicente Cunchi-Ilos jendeak aurrez egin dituen erosketak etxez etxe banatzeaz arduratzen da. Aurretik mezularia izan zen baina, esan digunez, hura gogorragoa zen, "karreteran nengoen egun osoa eta bidaia asko egiten nituen kanpora. Orain, aldiz, gauero etxean nago eta hori asko baloratzen da". Halere, lan honek bere alde txarrak ere badituela aitortzen du. "Zoritxarrez Elgoibarren bosgarren pisu asko dago aszensorerik gabe eta pisuarekin eskailerak gora joan eta jaistea nekagarria egiten da". Batez beste 15 pakete banatzen ditu eguneko, "baina ostegun, ostiral eta Iarunbatetan ugaritu egiten dira eskariak. Jende askok dauka ohitura astean behin aste osorako erosketak egiteko". Goizeko 10:30etik 2etara aritzen da eta arratsaldean 6:30ean hasi eta amaitu arte. Vicentek esan digunez, momentuz gustura dago Ian honekin, "baina erre egiten du. Egun osoa zabiltza paketeekin eta pisuarekin batera eta bestera, eskailerak gora eta behera. Nire aurretik beste batzuk egon dira eta atzetik ere etordko dira berriak". Pisua tartean dagoenean badirudi lanak gizonezkoena izan behar duela. Halere, Vicentek ba omen du emakumezko laguntzaile bat, "lan honetan ia beharrezkoa da bi pertsonen artean banatzea egitekoa. Izan ere, kargarekin zabiltza egunero eta bi esku baino hobeto moldatzen dira lau". Kontuak kontu, gaur egun gero eta gehiago dira erosketak etxera eramateko zerbitzua kontratatzen dutenak, "erosketak *eta jatekoa*. Nork ez du egunen batean Tele-Pizzara deitu?".

## Enpresaz enpresa

Antonio Aizpiri "Talaixak" 57 urte ditu eta 25 daramatza "Suministros Ibar" almazenean lanean, "fenreterixa industriala da, enpresentzako gauzak saltzen dia". Antoniok betidanik ikusi du bere lanean zein garrantzitsua den bezeroarekin haneman zuzena izan eta etengabeko harreta mantentzea, "oso inportantia da `servicio al cliente' deitzen dana. Egunero bisita bat eitxen dot tailerretan zeozer bihar daben ikusteko". Nork ez du ikusi Antonio bere motorrean batera eta bestera? Izan ere, Antoniok berak eramaten ditu lantegietara hauek almazenean egin dituzten erosketak. "Pisu asko daken gauzak diazenian grua bati edo transportistiari deitzen diogu baina gauza txikixekin ni ondo konpontzen naiz motorrian", esan digu. Motorra 1anerako lagunik onena du Antoniok, "oin dala 13 urte erosi gendun eta langilerik rentabliena dala trankil esan leike, ez dau sekula problemarik eman. Oin ez ditxue lehen bezelako motorrak eitxen".

Garai batean Antonioren nagusia ibiltzen zen autoarekin bisitak egiten baina motorra erostean Antonio hasi zen banaketekin. Susturen bat edo beste izan du inoiz errepidean, "eta hori ni ez naizela herritxik urtetzen. Eskerrak, ze zenbat eta gehixo ibili, orduan eta bildur gehixo ematen dau karreteriak. Gainera, urtietan aurrera eitxen dozun neurrixan, reflejuak ere galdu eitxen dia". Motorrari kariño handia hartu dio urte hauetan zehar Antoniok, "behin lapurtu ein zien. Segiduan konturatu nitzan eta aguazilari esan nion. Parte eman gendun eta Ermura ailegau baino lehen harrapau zeben Iapurra ertzainek". Antoniok badaki herri guztiak ezagutzen duela bere motorra, "nik `kawassaki" deitzen diot eta ondiokan gerra haundixa eman bihar dau kaminuan. Nerekin batera jubiIauko da".



*Antonio Aizpiri "Talaixa"k momotorrarekin egiten ditu banaketak.*

## Bokatak etxera

Eakitz Isasik 3 hilabete pasa zituen *Piloneko* banatzaile bezala. Esan digunez, "amak ezautzen zaban bertako tipua eta galdetu ein zion. Aukera ona zan diru piskat irabazteko eta hola hasi nitzan". Motorra *Pilonek* jarri zion, baita asegurua ere. Ekaitzek ostiraletik igandera egiten zuen lan, "baina igandetan ez zian pedido asko egoten". Esan digunez, gainera, "nik nahixo naban lana egotia ze bestela aspertu eitxen nitzan geldi. Motorra hartu eta banaketak eitxen gusturo ibiltzen nitzan". Arratsaldeko 8:30ean hasi eta gaueko 1 1 ak arteko ordutegia zuen, "afarixak banatzen zian". Elgoibar eta Altzolan egiten zuen banaketa, baita baserrietan ere. Azaldu digunez, bere aurretik lanean ibili zirenek jendeak adarra joko ziola esan zioten, "batez ere zapatu arratsaldietan. Baina neri ez jatan holakorik pasau'. Hori bai, gertatu izan zitzaion "baserri bateraino jun eta han ez zebela ezer eskatu esatia. Bateronbatek adarra jotzeko telefonoz deitzen zaban eta bokadilua eta biajia alper-alperrik eitxen zian". Ekaitz uda garaian aritu zen lanean, "baina laga ein naban ze eurixakin eta hotzakin motorrian ibiltzia paIo bat da". Halere, esperientzia aberasgarria izan zela aipatu du, "jende majuak deitzen zaban eta propinak ematen zizuen. Propinekin ixa gehixo irabazten naban soldatiakin baino".

# Ba al duzu erosketak etxetik egiteko ohiturarik?



**ANGEL GOMEZ**
**38 urte, rektifikatzailea**

"Circulo de lectores" delakoa jasotzen dut etxean eta liburuak katalogo bidez erosten ditut. Ostantzean, ez daukat ohiturarik erosketak etxetik egiteko.



**IÑAKI AYALA**
**43 urte, torneroa**

Behin edo behin erosi izan dut diskaren bat baina normalean nahiago izaten dut bai erropa, bai jatekoa, bai beste ezer dendara joan eta zuzenean erostea.



**FRAN ROMERA**
**37 urte, irakaslea**

Ez. Nahixao dot dendara jun eta gauzak ondo beiratuta erostia. Halere, aukera bat da eta ez dot esaten egunen batian katalogo bidez ez dotenik erosiko.



**BEGOÑA GURRUTXAGA**
**50 urte, etxekoandrea**

Ez, momentuz ez. Behin edo behin liburuak, enziklopediak eta holakuak hartu izan dou baina gainontzian ez dakau ohitxurarik.



**M. LUISA URREJO**
**54 urte, etxekoandrea**

Badakitx holako gauzak daudeia baina sekula ez dot erabili, ze nahixao dot dendara jutia. Akaso egunen batian dendara jun ezin dotenian erabiliko ditxut.



**FERNANDO PEREZ**
**56 urte, arrain maiorista**

Gure etxean emaztea eta aktba arduratzen dira erosketak egiteaz eta nik ez dakit gauza askorik baina uste dut buruak "Circulo de lectores"en erosten dituztela.



Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Taberna
alokatzen da
Madalan
1313 74 00 15
(20:00etatik 22:00etara deitu)

# KALEAN EZ EGIN "KALE"




**Ez bota kalean etxean botatzen ez duzuna**

# ELGOIBAR:
## GERO ETA GARBIAGO

ELGO111411E0 ITALS

111:5·111|111·XIAINNKOVUMIATP,

1";IP1ZKIP■Nn ,4113nDIA

## • Tekniker eta Fatronik Ertamerimra begira

Eibarko Tekniker eta Elgoibarko Fatronik enpresak Paraguay, Brasil eta Argentinan formazio zentroak zabaltzeko aukera aztertzen ari dira. Duela bi urte Argentinan ireki zuten zentro bat eta ernatztzak onak izan direnez, beste zentro batzuk martxan jartzeko asmoa dute. Bi enpresa hauek Argentinako Cordoba hirian kokatuta dagoen Intek zentroko partaide dira eta kapitalaren %50a euren esku dago. Zentro honetan Fatronik eta Tekniker-ek garatutako teknologia erabiltzen dute.

## • 80 urtetik gorakoak omenduko ditu Jubilatu Etxeak

Abenduaren 5ean Jubilatu Etxeak omenaldia eskainiko die 80 urtetik gorako bikote ezkonduei eta aurten urrezko eztaiak egin dituztenei. Egun hori ospatzeko bazkaria izango da. Bazkarira joan nahi duenak izena eman dezake Jubilatu Etxean bazkide txartela eta NANa erakutsita.

## • "viinea irakaskuntzar programa martxan

Joan den astelehenean izan zen DBH, BUP eta REMeko ikasleei zuzendutako Zinea eta Osasuna programaren lehen emanaldia. Montxo Armendarizen "Seeretos del corazOn" filmea ikusteko aukera izan zuten herriko ikasleek. Programa hau Uclal Ongizate Sailak eta eskola partaideek antolatzen dute eta Eusko Jaurlaritzak subentzionatzen du. Egitasmoaren helburua pelikuletako pertsonaiek bizi dituzten egoeren azterketaren bidez duintasuna, oreka eta beste balore pertsonal batzuk lantzea eta sakontzea da.

# Seinalizazio berria anbulategi pagean eta Santa Anan

Bemardo Ezenarrok, Pedro Migel Urruzunok eta Madalatik gora datorren kaleek bat egiten duten gurutzebidean, Osasun Zentroaren aurrean hain zuzen, trafiko seinalizazioa aldatu egin dute aste honetan. Bemardo Ezenarro kaletik behera datozen autoek aurrerantz jarraitu ahal izango dute beti ere, Alkortako telarrera aparkatzera badoaz. Hala ere, debekatuta dago Madala aldera jarraitzea. Orain arte, Madalatik gorantz etorriz gero, Pedro Migel Urruzuno kalera zihoazenek eskumako bidea hartzen zuten eta Bemardo Ezenaňora joan nahi zutenek ezkerrekoa. Orain, berriz, kale batera zein bestera doazen auto guztiek eskumako bidea hartu beharko dute. Pedro Migel Urruzuno kalera joanez gero, bidea eman behar da eta Bemardo Ezenarrora joanez gero, "Stop"a egin. Bestalde, Santa Ana kalean, kamioentzako zegoen aparkalekua autoentzat izango da aurrerantzean eta kamioien aparkalekua Andikanon egongo da. Errotondatik Trenbide kalera irteten diren autoentzako bidea ere hobetu egin da.





## Anorexia eta bulimia aztergai

Joan den ostiralean 30 bat lagun bildu ziren Haizea Emakume Taldeak antolatutako anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldian. Haizeakoek esan digutenez, "gazte asko hurreratu zen eta benetan interes handia erakutsi zuten. Argi geratu zen gaur egungo gizarteak pairatzen duen arazo bat dela eta kezka ere badagoela. Herri Institutuan gai hau aztertzeko hitzaldi bat antolatzeko proposamena ere egin zen".

## Hezkuntza eta kalitateari buruzko hilzaldia

Gestio Eskolak, Kalitatearen hobekuntzarako Euskal Erakundearekin elkarlanean antolatuta, hezkuntzan kalitatea hobetzeko esperientziei buruzko hitzaldia izan zen astearte iluntzean. Ikastetxe ezberdinetako ordezkariek zentro horietan burututako esperientzien berri eman zuten: Alfonso Guill6k, Elgoibarko ikastolako esperientzia; Kike Intxaustik Tolosa, Bergara, Usurbil eta Martuteneko institutuetako esperientzia eta Gestio Eskolari buruzkoa Jose Mari Ulaziak.



## • Kalabaza erraldoia Ineko nekaml dendan

Begira zein kalabaza ederra topatu dugun San Frantzisko kalean dagoen Ineko nekazal dendan. Argazkian Ainhoa, Inekoko saltzailea agertzen zaigu 77 kiloko pisua eta 2 metro eta 25 cm.ko zirkunferentzia duen kalabazarekin. Ineko Kooperatibako partaidea den Jose Luis Galdona arroatarraren Etxeberri baserriko lurretan hazi omen da kalabaza ikusgarri hau eta berak aitortu duenez, ez du sekula horrelako alerik ikusi. Jakin dugunez, ongarri mordo batekin hazitakoa da. Kalabaza ganaduak jateko izango da.



## • Gaur, hilak 14, hasi dira astaltallen Santa Klara auzoa

San Migeleko errekastoaren ubideratze lanak abenduaren ***erdi*** aldera amaituko direla ernan du jakitera Udalak. Azken hilabeteotan Santa Klara auzoan egin diren obrei esker, San Migeleko errekastoak ubide handiagoa izango du eta ubide zaharra etxeetako ur zikinak eramateko erabiliko da. Ubide zahar hau konpondu egin dute zeregin berri horretarako. Oraindik lan batzuk falta dira dena amaituta egoteko: Santa Klarako mojen ortuetarako sarrera egitea eta kaleak asfaltatzea. AsfaItatze lanak gaur hasi eta hiru egunez luzatuko dira.

## • Guraso Eskola marlxan

Asteartean, hilak 12, Gurasoen Eskolako beste ikasturte bat hasi zen. Bi programa ezberdin landuko dira seme-alaben adinaren edo eskola mallaren arabera. 2 urtetik 6ra bitarteko haurren gurasoek osatuko dute talde bat eta 6tik 12 urtera bitartekoenek beste talde bat. Gurasoen Eskolaren helburuak seme-alaben heziketan laguntzea, eskolan prebentzioaren inguruan egiten ari den lana sendotu eta osatzea, zalantzak argitzea eta eguneroko harremanetan sortzen diren arazoei irtenbidea ematen laguntzea dira. Gurasoen Eskolako klaseak Kultur Etxean ernango dira astearteetan I4:45etik 16: I5era bitartean eta 19:00etatik 20:30era bitartean. Hizkuntzari dagokionean klaseak euskaraz edo gaztelaniaz izan daitezke.



## 109 gaixo eta elharrituren topaketa Elgoibarren

Elgoibar, Azkoitia, Azpeitia, Zumaia, Zarautz eta Orioko 109 gaixo eta elbarritu elkartu ziren Elgoibarren aurreko domekan gaixoen arteko konbibentziak zirela eta. Elgoibarko Osasunaren Pastoralak antolatuta, eguerdiko 12:30ean, meza entzun ondoren bolatokiko parkean den-denak bildu genituen argazki hau ateratzeko. Eguerdi partera Gure-Bide elkartera hurreratu ziren gaixo eta zaintzaile guztiak lagunarteko bazkarian parte hartzeko. Osasunaren Pastoralak eskerrak luzatu nahi dizkie eskainitako laguntzarengatik honako elkarte hauei: Eroski, Altzolako Urak, Aitzbizkar ardoak eta hereziki Gure-Bide elkartea.

# Ostegunean aurkeztu zen kale garbiketari buruzko plana

## Herritarrak kontzientziatu eta garbiketa zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi da

*Duela zenbait aste azaldu genuen Gillermo Garate alkatea ahaleginetan zehilela plan pilotoa Elgoibarren egiteko. Badirudi herri honek dituen ezaugarriak (biztanlegoa, egitura urbanoa eta izaera soziala) aproposak iruditu zaizkiola Deba Beheko Mankomunitateari, aipatu plan pilotoa Elgoibarren egitea erabaki baitu.*

Atzo, azaroak 13, jarri zen martxan Elgoibarren "Elgoibar, gero eta garbiago" kanpaina. Aipatu kanpaina Euskadi eta Estatu mailan lehen aldiz egingo den plan pilotu batean dago oinarritua eta helburua herritarren kontzientziazioa eta garbiketa zerbitzuaren kalitatearen hobekuntza da. Deba Beheko Mankomunitateak, Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako kanpainak sei hilabete iraungo du eta Elgoibar herri garbiaren eredu bihurtu nahi da.

Herritarren inplikazioak eta gaur egun dauden zerbitzuen hobekuntzak kaleen garbiketan eragin zuzena izango luketela frogatu nahi da horretarako lema berezi bat erabiliko delarik: "guztion artean Elgoibar garbiagoa lor dezakegu". Besteak beste, herrian zehar 1.000 kartel jarriko dira kanpainaren lemarekin.



Elgoibar herri garbiaren eredu bihurtu nahi da.

**Udal bandoa eta ikastaroak**

Herritarren inplikazi o zuzena lortzeko alkateak sinaturiko udal bandoa kaleratuko da jendea parte hartzera animatuz. Gainera, bizilagunek eskutitz bat jasoko dute etxean gaiari buruzko azalpenekin. Horrez gain, herriko zenbait pertsona ezagunek manifestu bat sinatuko dute kanpainarekin bat datozela azalduz eta herrian zehar buzoi eta zerrendak jarriko dira, herritarrek kanpaina babesten dutela esateko aukera izango dutelarik. Aurreko guztia gutxi balitz, gaiari buruzko ikastaroak emango dira ikasle, etxekoandre, jubilatu, merkatari eta nahi duten guztien artean. Gainera, doaneko telefono zenbakia jarriko da jendeak dituen zalantzak, kexak, aholkuak edo iritziak jasotzeko. Udaletxean bertan ordutegi konkretu bat egongo da herritarrek zuzenean dituzten kezkak azaldu ahal izateko.

Honekin batera, Deba Beheko Mankomunitateak gaur egungo egoeraren azterketa egingo du garbitasunari dagokionean eta, behar izanez gero, zerbitzua hobetuko du.

Astero, telefono bidez edo zuzenean jasotako iritziak aztertuko dira plana noIa doan ikusi eta hartu beharreko neurriak zehaztu ahal izateko.

# Europar Batzordeak 3G milioi pezetako dirulaguntza emango du Ekain II proiekturako

## Proiektua eskabadorak sartzeko fasean dago

**Joan** den astean Gillermo Garate Elgoibarko alkatea eta Debegesako lehendakaria dena, Iñaki Arriola, Eibarko alkatea eta Juan Angel Balba's, DEBEGESAko gerentea Bruselasen elkartu ziren Eneko Landaburu, Europar Batzordeko Lurralde eta Kohesio Politikarako zuzendariarekin eta Marcelino Oreja Agirre, Europar komisarioarekin. Europar Batzordeko ordezkariek proiektua "interesgarria" dela adierazi zuten.

Europar Batzordeak hasiera batean 36 milioi pezetako dirulaguntza eskainiko duela esan zuen. Gogoratu proeiktuaren aurrekontua 1.500 milioi pezetakoa dela. Batzordekideek adierazi zuten ahaleginduko direla Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Aldundia eta Madrilgo Gobernua ere proiektuan inplikatzen . Izan ere, Marcelino Orejak esan zuenez, Esperanza Aguirre kultura ministroari Ekain II proiektuaren alde hitz egingo dio. Garateren hitzetan, "beharrezkoa da Deba Beheko estamentu guztien inplikazioa eta laguntza. Guztion artean lortu behar dugu Deba Beheari bultzada ekonomiko berria ematea".



Ekain II projektuaren maketa.

# ROSARIO ZUBIAURRE:
# "Imajinazivakin eta lorekin oso gauza politxak eitxen dia"

***Rosario Zubiaurrek 53 urte ditu eta Txillarre baserrian bizi da, Sallobente auzoan. DEBEMENek antolatutako lore sikuei buruzko ikastaroa egin du orain gutxi. Ikastaroak bi asteko iraupena izan du, astelehenetik ostegunera bi ordu. Bertan loreak, fruitu lehorrak eta belarrak erabiliz gauza benetan politak egiten irakatsi diote.***



**Beti gustatu izan al zaizkizu eskulanak?**

- Beti. Eskuekin lan eitxia asko gustau izan jata betidanik eta lorekin ere oso gustura ibiltzen naiz.

**— Lore sikuei buruzko ikastaroa zegoela jakin zenuenean berehala animatu zinen, beraz.**

Bai. Baserrixan lora freskuak dazkagu eta haretxekin ibiltzen nitzan baina lorak sikatzen ikasteko ikastarua zauala jakin nabanian interesantia beitxandu jatan eta apuntau ein nitzan.

**—Zer da ikasi duzuna?**

- Lorak, frutak, belarrak eta bestelakuak zela sikatzen diazen eta behin sikatuta daudenian gauza desberdinak eitxen. Danetik ein laike.

**—Esaterako?**

- Nik espillo baten markua ein dot lorekin, oso politxa geratu da. Eta jendiak danetik ein dau: batzuk babak eta artua erabili dabe zentruak eitxeko, otarrak, kafeterak eta zoperak adornau...

**Erraza al da loreak sikatzeko teknika?**

Bai. Teknika desberdinak daude baina guk batez ere etxian dakaguzen gauzekin eitxeko teknikak ikasi genduzen. Lora freskuak hartu eta toki ilun eta siku batian laga bihar dia hamabost bat egunian ondo sikatzeko. Kuadruak eitxeko lorak liburuetako orrixen artian sartzen dia sikatzeko. Modu desherdinak daude baina ez dia zailak. Edozeinek eitxeko oso erreza da eta ez da denbora asko bihar. Lau bat ordutan gauza benetan politxak eitxen dia. Kontua, ekin eta polikipoliki zeozer urten arte disfrutatzen egotia da.

**Gustu piskat izan beharko da.**

Bai, norrnala dan bezela, zenbat eta gusto gehixo euki eta koloriak eta lora desherdinak ondo konbinatzen baldin badakizu, orduan eta gauza politxauak urtetzen dia. Imajinazivakin eta lorekin oso gauza politxak eitxen dia, nik uste nabana baino askoz gauza gehixo gainera.

**—Garestia al da?**

- Ez, ze mendiko lora silbestriak hartuta ere oso gauza politxak eitxen dia. Askotan betiko lau lora ezautzen ditxugu eta ez gera konturatzen gure inguruan lora diferente asko datiala.

**—Lore sikuek izaten al dute usainik?**

- Batzuk bai baina sekula ez dia lora freskuak bezelakuak izaten. Sikatzerakuan galdu eitxen da bai usaina eta bai koloria. Hori bai, zenbat eta toki ilun eta sikuaua izan orduan eta hobeto mantentzen da Ioria. Euzki piskat sartzen hada, lore freskuan koloria galdu eitxen da.

**—Beste ikastaroren bat egiteko asmorik ba al duzu?**

- Bai. Oin egurrakin kajatxuak, etab. itxeko ikastarua antolatu dabe eta eman dot izena. Lehen kontserbatzen ikasi gendun eta oso praktikua izan zan. Danetik erakutsi ziguten konserhatzen: atuna, tomatia, piperrak. mermeladia eta menbrillua eitxen...

# ARMAZIO baserria

*Arrateko bidean kokatzen da Arniazio baserria, San Pedroko azkena. Bertan bizi da Garate-Loiola Baserriak 400 urte pasa ditu eta, Maria Jesusek esan digunez, garai batean "Txarriduna" ezizenez ezagutzen zen txerri tratante aberats bat bizi oinen zen bertan. Gerora, Iruna-Berri baserriko Jose Garate eta Arnobixako Josefa Zubizarreta joan ziren bizitzera Armazio baserrira, Jo.sek Aizpiri txokolateroari etxea erosi eta gero.*



Julian Loiolak garraio enpresa bat dauka eta baserriko lanak Maria Jesuen esku geratzen dira. Umetatik ohitu da baserrian Maria Jesus, "hementxe jaixo nitzan eta beti bizi izan naiz baserrixan. Kalia bizitzeko zelakua dan ez dot ezautzen eta badakat pena hori". Izan ere, Maria Jesusek ez zuen baserrian bizitzerik aukeratu, horrela tokatu zitzaion eta sekula ez zuen beste era bateko planteamendurik egin. Basenia gustatzen zaion edo ez galdetzean ere ez du erantzun konkreturik ematerik izan, "bizitza guztia daruat baserrixan baina ez dakitx zer gustatzen jatan eta zer ez. Pena bat dakat, nere kontura lan ein eta hilero jornala ez irabaztia. Lehen igual ez nitzan hainbeste konturatzen baina lana eitxiak independentzia ematen dau eta, gainera, gogua badakazu...". Garai batean Aubixa bametegian egin zuen lan baina orain dela lau urte bere aitak istripua izan zuen eta tetraplejiko geratu zen, "orduan laga ein bihar izan naban Iana. Oin astebukaeretan juten naiz batzuetan eta egixa da lana eitxiak ere badakala bere desbentajak. Lanak ere nahiko burukantzantzio daka eta nahi. ko ardura".

**Ostegunero Merkatu Plazara**

Josefa, Maria Jesusen ama ostegunero jaisten da kalera Merkatu Plazan baserriko produktuak saltzera. "Hori da bere poza. Behin edo behin ni egon izan naiz eta neri ez jata batere gustatzen. Jendia duro baten gora-beheran hasten jatzu danakin. Baina ezin leike sinistu zeIako pozik ibiltzen dan gure ama slatsa horretan. Kalian ez dau ikusten bere burua baina merkatu plazan bere txokua aspalditxikan daka einda. Aman pozak bi dia: ostegunetan merkatu plazara bajau eta jai goizian San Pedroko elizara mezetara jutia".

**Koadrorik ederrena kanpoan**

Kontua da Armazio baserriko leihotik begiratuta bista izugarri ederra dutela. "Hori bai, batez ere jendia konturatzen da. Egixa da kale zuloko ilunan aurrian edertasun haundixa ematen dabala guk dakaun bistia eukitziak, Karakate osua ikusten da...". Horrelako ikusmira izanik, etxe barruan ez da koadrorik behar. Gainera, Maria Jesusek esan digunez, "egunen batian baserritxik alde ein biharko banu, auzua lagatziak pena haundixa emango zian. Inguruko baserrixen artian oso harreman ona dao. Familixakuak izango balia bezela. Eta hori asko baloratzen da"

## Gaztainondoak

Gaztainak jateko garaia da. Udazkenean sartu gara eta lehen haize hotzak bazterrak astintzen ari dira. Horrelako egunetan gaztaina erreen usaina nabarmentzen da kalean. Izan ere, urri aldera botatzen dituzte gaztainondoek beren fruitua. Armazio baserrian ehundaka urte dituzten gaztainondoak daude, "nik betidanik ezautu ditxut eta nere aitxitxak ere bai. Kilo mordo bat gaztaina botatzen ditxu urtero". Pagoak eta haritzak bezala, gaztainondoak ere urte asko behar izaten ditu hazteko, "horregatik jendiak ez ditxu berrixak sartzen. Gainera, zuhaitz zikina da", esan digu Maria Jesusek. Baina egun hotzetan, zeinen gustura jaten ditugun denok gaztaina errealdo

## ARMAZIO

**Auzoa:** San Pedro
**Bizilagunak:** Simon Garate, 75 urte; M. Josefa Garate, 72 urte; Julian Loiola, 50 urte; M.Jesus Garate, 49 urte; Nerea Loiola, 21 urte eta Loiola, 20 urte.
**Lur hadadura:** 16 hektarea
**Esplotazioa:** 16 buru, limusin arrazakoak okelatarako. Ortuko produktua etxean kontsumitzen dute eta ostegunetan Merkatu Plazara jaisten dira saltzera.

# MENDARO (Azpilgoeta) - PLAZA AUZOA - ARNOATE - ORMOLAKO PUTZUA - MENDARO




## Ibilbidea

si 1 Mendaroko Azpilgoeta auzotik abiatuko gara.

■ **2 'Plaza'** auzora joko dugu CN-634 errepidearen ondotik doan oinezkoen pasealekutik Elgoibar aldera hartuz. Pasealekua amaitu ondoren, autopistaren tunela pasatu eta `Plaza' auzoa zeharkatuko dugu Artañola baserriraino. Hemendik aurrera 4 kilometrotan zehar hormigoia dago bidean.

■ **3** Bidean zehar jarraituko dugu Arnoate baserrira iritsi arte. Arnoate gainean bidearen eskumarantz joko dugu ekialdeko norabidea hartuz.

■ **4** Pinadi bat zeharkatuz Amei-Kutzeko Harritenteraino ailegatuko gara eta hemen berriz eskumako pista hartu behar da, pinaditik argigune batera iritsi arte. Ezkerretik goruntz joanda artadi batean sartuko gara eta hemendik jarraituko dugu.

■ **5** Kanpanzar gailurraren azpialdetik segituko dugu.

■ **6** Ormolako putzura helduko gara, antena bat dagoen mendian. (Arnoatetik Ormolako putzurainoko bidea marra gorri eta zuriz markatua dago). Itzuleran, Ormolako putzuaren ondoan dagoen hesia zeharkatuz pinadian sartuko gara. Eskumako xendatik jo eta artadian barneratuko gara harrizko bidetik jarraituz argigune batera atera arte.

Hemendik, pinaditik behera doan pista jarraituko dugu.

■ **7** Txabola bat ikustean eskuma aldean goruntz daraman pista jarraitu behar da.

■ **8** Sahatzu-gain ingurura helduko gara eta bide hormigonatutik Mendarora jaitsiko gara Ospas-Gain futbol zelaitik.

zi **9** Ospas dorretxearen ondotik pasatuz iritsiko gara abiapuntura.

**Ibilbidearen batez besteko iraupena 4 ordukoa da.**

## Kontuan izatekoak

**A.** izoa.

ra Mariaren eliza, Abadetxea. Kultur Etxea. Santakruzko Sortetxea eta Saint-Gerons txokolateen fabrika aurki daitezke. besteak beste.

DD, Plaza auzoa: Mendaroko nekazal auzoa Intxusai errekak zeharkatzen du. Errekatik gora joz, izugarrizko urjauziak ikus ditzakegu sarbidea zaila zan -en.

**C.** Artañola baserria: Intxusai errekaren uherr2ean kokatutako antzinako burdinola da gaur egun herritutako baserria izan arren.

Arnoate baserria: Elgoibarko iarekin muga egiten du eta Ieku aproposa da ibilaldian zehar atsedena hartzeko. Bertan aurten herritu duten rnoateko iturria dago.

Amei-Kutzeko Harritentea: Harrian granbatutztko gurutzezt, Szthatuz-gain inguruan kokatuta dago. I3ere jato

**Iturria:** Deba Deheko gida turistikoa.

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: **Asier Albizu, Iñaki Olleduerra eta Agustin Irusta.**

HITZALDIA



# ixo!... Egualdixal

## Pello Zabala

### Arantzazuko frailea



- Zergatik zarete hain famatuak eguraidi-gizonak?
- Zergatik berba egiten da hainbeste eguraldiaz?
- Nola asmatzen duzue eguraldia?
- Eguraldiaren aldaketa Euskal Herrian

**Azaroak 19, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan**

**KULTUR ETXEAN**

Antolatzaffea:
ELGOIBARK0 IZARRA K. E.

Lagunizailea:
ELGOIBARKO UDALA

---

# GARAY

San Frantzisko, 9
Tel: 74 13 92

URDAITEG

EUSKAL OKELA

Gipuzkoako Harakin eta Txarkuteroen Elkartea

# Karibera!



Azaroaren 9an egindako zozketan ez zen asmatzailerik egon. Beraz, azaroaren 16ko zozketan 15.000 pta.ko BOTEA egongo da.

Azaroaren 16ko eta 23ko Real eta Athletic-en partiduen emaitza asmatzen baduzu, 7.500 pta.ko erosketak doan izango dituzu.

Parte hartu duzuen guztion artean azaroaren 30ean KARIBERA bidaia zozketatuko da Donostian.

**ORAINDIK AUKERA DUZU!**

# "100 urtetik gorako udaletwan armairu bat berriztu genuen"

*Orain dela bi urte, emakume elgoibartar langabetu talde batek altzarien birziklapen eta berrizketa ikastaro bat egin zuen. Tartean 53 urte dituen Mertxe Solar zegoen eta ikastaro hartako beste emakume batzurekin batera* **Eskuz** *arte tailerra sortzeko erabakia hartu zuen. Ordutik aurrera,* **Eskuz** *elkarteak ikastaroak antolatzen ditu. Hori dela eta, ikastaroaren nondik norakoei eta egiten duten lanari buruz zerbait konta diezagun, gure artera ekarri dugu aste honetan Mertxe.*

MERTXE SOLAR

**- Nondik datorkizu objetu zaharrak berriztatzeko zaletasuna?**

Inork irakatsi gabe, betidanik gustatu izan zait margotzea. Irakaskuntza bereziko ikastetxe batean egin izan dut lan eta bertako haurrekin marrazkiak egin eta pintatzeko aukera izaten nuen.

**- Nola sortu zenuten** *Eskuz?*

- Altzairuak birziklatzeko ikastaroa amaitu genuenean elkarte bat sortzea erabaki genuen. Udalari baimena eta egoitza eskatu genizkion, Donostiara ere joan ginen eta beharrezko tramiteak bete genituen. Ondoren, Muguruza ikastetxean eskaini ziguten lokala eta horrela sortu genuen *Eskuz.*

**— Zer irakasten duzue ikastaroetan?**

- Altzariak birziklatzen. Gauza zaharrak berriztatzen ditugu: egurra, beira, burdina... edozein materia1.

**—Nola erantzuten du jendeak?**

- Iaz jendeak oso ondo erantzun zuen baina aurten oraingoz bi pertsonek bakarrik eman dute izena. Ikastaroa emateko gutxienez bost pertsonako talde osatzea komeni da.

**—Zein prozesu jarraitu behar da zaharberritze lan batean?**

- Lehendabizi objetuak zaborretik jaso edo hiriburuetako zentro batzuetan oso prezio baxuan erosten ditugu. Lehenengo lana, xaboiarekin eta urarekin altzaria ondo garbitzea da. Lehortzen laga ondoren, zer egin nahi dugun erabaki behar da, pipiaren aurkako tratarnendua erabili behar den, lixatzea komeni den... Azkenik margotu egiten da eta, behar izanez gero, tindatu eta barnizatu.

**—Ordu asko eta pazientzia ere beharko dira.**

- Bai, baina birziklatzen den objetuaren arabera da hori. Lan hauetan esperientzia dugunok azkar egiten ditugu birziklaketak. Ikasleek, aldiz, denbora gehiago pasatzen dute lan bakoitzarekin. Praktikak ematen du erraztasuna.

**—Zer egiten duzue amaitutako lanarekin?**

- Ekainean, Trinitate jaietan, urtero egiten den artisautza erakusketan jarri genituen lanak ikusgai. *Eskuzek* egindako lehen erakusketa izan zen. Zenbait lan saldu ere egin genituen.

**—Zaila al da lanei prezioa jartzea?**

- Zaila da zuk egiten duzun lana baloratzea eta horri zaharberritzeko erabili duzun materialaren gastua gehitzea. Dena den, beti prezio baxuak jartzen ditugu.

**—Zure etxean ba al duzu birziklaturiko zerbait?**

- Mahai bat, ispilu bat... Azken finean, *Eskuzeko* guztion helburua egiten ditugun gauzak etxean jartzea da.

**—Makinen garaian, atsegin berezia ematen al du eskuekin lan egiteak?**

- Bai, noski. Gainera, azken emaitza polita bada, zoriontasuna bikoitza da.

**—Eskari berezirik jaso al duzue?**

- Bai. Udaletxetik 100 urtetik gora zituen armairu bat berriztatzeko eskatu ziguten eta oso ondo geratu zen. Sitsak jandako bi **aulki** ere iritsi zaizkigu. Ezin ziren erabili baina, dirudienez, baserriren batean oroigarri modura mantendu nahi zituzten, oso aintzinakoak ziren eta

**Birziklatzeaz gain lan orijinalik ere sortzen al duzu?**

- Betidanik pintatu izan dut, baina zure lan propioa sortzeko imajinazio handia behar da eta hori oso zaila da.

**Asier Orbea**










# Miket Awmateei

k e I o grotion bizi da eta 23 urte ditu. 18 urte bete gabe zitueia, Elgoibarko Institutuan UBI amaituta, 1992ko udan familia osoa ToIosara joan zen bizitzera. Arrazoia, aitak lana tokiz aldatu zuela, Tolosatik hurbil, Zizurkilen, nekazal ikasketak hasi zituen, Fraisoron. Baina ikasturtea amaitu aurretik beste mudantza bat izan zuen, konkretuki, Errioxako Logroñora. Arrazoia berriro ere lana izan zen. "Hasiera batean gogorra izan zen, faltan botatzen bainuen Elgoibar eta batez ere bertako gauza asko: Gabon Zahar feria, Aitzgorrira igoera..."

Uda guztietan oporrak igarotzera Logrofionk 5 km.ra dagoen Ireguako Villamedianara joaten hasi zenez, (2.500 biztanleko herria da) "lagunak egiteko garaian ez nuen inongo arazorik izan".

Urtebete pasa eta gero Enologia ikasketak hasi zituen "eta horrek finkotu ninduen. Ikasketak arnaitu eta bodegetan hasi nintzen lanean baina nahiko saturaturik zegoenez beste arlo batera jo behar izan nuen". Gaur egun lan aldetik nahiko asentaturik dagoela esan digu. "Elgoibar eta Euskal Herria faltan bota arren gustura bizi naiz Logroñon. Gaur egun, errealzale peña bat montatzekotan nabil Villarnedianan".

4''.
V pJE$ UIDAIAK
11.51:10 EXPQESS
bidaia agentziak
babestutako *atala*
Foruen plaza, 3
TeL 74 39 12

# Jacinto Astiazaran Azurza

## (1898-1885)



• 1896ko otsailaren 2an jaio zen Usurbilen. 7 anai-arrebatatik hirugarrena zen.
• Gazte zela familia Oriora joan zen bizitzera. Oso bromazalea zen, txantxetarako beti prest. Hori bai, asmo Ixarrik gabe.
• Geroago Elgoibarrera etorri zen igeltsero lanera. Urte mordo bat egin zituen lanbide honetan. Azken urteak, berriz, Sigman eman zituen.
• Ambrosia Zubiarekin ezkondu eta 3 seme-alaba eduki zinizten. Berba egiterakoan grazia handiko emakumea zen.
.Elgoibarko baserri gehienetan igeltsaritza lan ugari egin zituen Jazintok. Kalean ere bai beste lan mordoa. Orduan ohitura zen etxekoandreak hamarretakoa edo merienda eskaintzea etxean Ianean zegoen langileari. Tarte horietan kontu ugari ezagutu zituen eta jendea barrez lehertzen jartzen zuen here graziarekin.
• Enˉepublika garaian antzerkian ibilitakoa zen. Beti atal barregarrietan hartzen zuen parte eta oso tipikoa zen egiten zuen
• Hainbat urtetan Elgoibarko parroki abesbatzean kantatu zuen. Baltasar elkarteak antolatuta, German Uriguen "Etxegiña" buru zelarik, sarritan abestu izan zuen Santa Agedako koroetan,
• "Usurbil" esaten zioten, hangoa baitzen.
• Abertzale amorratua zen. Euskal Herriko kontu eta kanta asko ezagutzen zituen. Gauza hauetan zuen jakinduria gazteei irakasten zien bere ohiko txantxa eta alaitasunarekin.
• Mendizalea zen; futboIa eta perretxikoak ere atsegin zituen. Traineruetan. Orioren afizionatu sutsua zen.
• Larogeita piku urte pasata ere perretxikoak batzen ibiltzen zen Bernabe Mujika eta Olasolorekin.
• Pertsona popularra, alaia eta sinesmenduna zen.
• 1985eko urtarrilaren 18an hil zen Errosario kalean 89 urterekin.

**Juanito Gorostiza**

KAROBI
TA311




JAKIN

❑ informatika
❑ Kiase partikularrak
❑ Kontu eta nnerkatal gestioa
❑ Mekanografia

TALDE MURRIZTUAK
KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Errosario, 25- 1 esk. — Santabitz, 4
Tel: 74 08 95 — Tel: 76 00 68
ELGOIBAR — BERGARA



Aste honetako erretratua Joxe Mari Gurrutxagak lagatakoa da. C. D. Elgoibarrek makina bat futbol ekipo on eduki ditu baina hemen agertzen den hau benetan ona zen.

1940ko abuztuaren 28an talde honek Gipuzkoako Kopako kontsolazioko finala jokatu zuen Bergarako Agorrosin futbol zelaian. Elgoibarrek 4 gol egin zituen eta S.D. Pasajesek 0. Antonio Moskote ezagunak egin zituen lau golak. Final handian Real Unianek 4 eta 0 irabazi zion Tolosari egun berean Atotxan jokatutako partiduan.

Eskuinetik ezkerrera, zutik: Fernando Aiesta, Gabriel Gabilondo (t), Jose Maria Lizundia, Jesus Egaña, Cruz Arriola, Eulogio Etxeherria eta Jose Mari Igartua.

Behean, makurtuta: Jesus Barrenetxea, Fernando Arberas, Antonio Unzueta "Moskote" eta Carlos Unzilla (t).

Egun horretan ere jai alaia izan zen Elgoibarren.


- Kontabilitate
- lan
Kala riua, 12
Tel-Faxa:
74 18 91
URKIDI
Fiskal AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGUROAK

Arrieta
karkizano
San Frantzisko 12-14 — Tel: 74 05 49

Cordon,Vilarchao, c.b.
12, E K C) R A Z I C) A
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke, 7 behea. Te1.74 28 74 - 74 05 70

CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.
Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak
Urasandi, 12 behea
Tel-Faxa: 74 04 89

# K I ROL ALBISTEAK

## • Egoitz Mora 'ffirolari promesar iiendatu du Aldundiak

Egoitz Mora, Ibai Kirol Elkarteko judo ikaslea, Aldundiak bultzatzen duen etorkizun handiko kirolarientzako programa batean parte hartzen ari da beste kirolari batzuekin batera. Elgoibartar gazte hau aurreko denboraldiko lorpen guztiengatik hautatu dute: Gipuzkoako eta Euskadiko 17 urtez azpiko txapelduna; nazioarteko urrezko dornina Frantzian eta Andorran eta brontzezko domina Melillan jokatutako Espainiako 17 urtetik beherako txapelketan. Egoitzen aurretik AnjeI Albizu eta Gorka Garate judoka elgoibartarrek hartu izan dute parte Diputazioaren programa honetan. Programaren arduradunek gertutik jarraituko dituzte hautatuko kirolariak eta aldika kontrolak egingo dizkiete (kontrol medikoak eta kirolazterketak), eta baita txapelketa zialetako emaitzen jarra1pena ere.



# Hiru korrikalari gazte, lurretako krosean irabazle

intxeta Atletismo Taldeko korrikalariak Iurretako herri krosean egon ziren joan den domekan. Benjamin, alebin eta infantil kategorian hartu zuten parte eta emaitzak benetan nabarmenak izan ziren. I-11-ru kategorietan, mutiletan, elgoibartarrek irabazi zuten. Iker Isasi Iehenengoa izan zen benjamin aurreko kategorian. Iker Arrillaga benjaminetan txapelduna izan zen eta Julen Merino alebinetan.

**KROSEKO SAXLKAPENA**

**BENJAMIN AURREA**
1- Iker Isasi

**BENJAMINAK**
1- Iker Arrillaga
4- Imanol Perez
16- Lander Azpiazu
21- Alberto Ckdaba

**ALEBIN MUTILAK**
1- Julen Merino
21- Eduardo Cltrdaba

**ALEBIN NESKAK**
12- Dorleta Aranberri
13- Nerea Zubiaurre

**INFANTILAK**
4- Ataitz Merino
5- Leire Perez

Igandean, hilak 16, Irungo krosean izango dira Mintxetako neska-mutilak. Denboraldi benetan ona egiten ari direnez, elgoibartarrak Irunen nabarmenduko diren esperantza dute Mintxeta taldeko arduradunek.



# ESKOLARTEKO KliRoLAK

## EMAITZAK Azaroak 8 1. 'ardunaldia

**ARETO FUTBOLA**

**ffi Benjamin mutilak**
Pilar A 1 Pilar B **8**
Urasandi - Mendaro A **18**
Ikas Bulls **8** - Ikas Tximista 0
Ikas Gorri 1- Ikas Bihurri **4**

**• Benjamin neskak**
Pilar A Pilar **B 7**
Ikas Ortzadar **8** Ikas Bizkor 1
Ikas Hartz 0 - Ikas Beleak 9

**ESKOBALOUt**

**• Infaniii mutilak**
Ikas Otsokoak **19** - I nstitutua **7**
Ikas Bolilla **28** Ikas Axelko **9**
Pilar Kadeteak **13** Basati **8**

**• Infantil neskak** ffi
Pllar A 0 - Institutua
Ikas Spanky **8**- Ikas Trol **9**

## AGENDA Azaroak 15 larunbata

**ARETO FUTBOLA**

**ffi Benj. mulilak (Mintxelan)**
**9:30** Pilar A - Urasandi
10:00 Ikas Bulls - P[lar B
**10:30** Mendaro A- Ikas Bihurri
11:00 Ikas Gorri - Ikas Tximista

**• Benj. neskak (Mintxelan)•**
**11:30** Pilar A• Ikas Ortzadar
12:00 Ikas Beleak - Pilar B
12:30 Ikas Hartz Ikas Bizkor

**SASKR3A10111**

**• Alebin mutilak (Urasandin)**
**10:30** Mendaro B- Ikas Gol
**11:15** Ikas Espabidubi - Pilar **B**
**12:00** Ikas Inpernu - Urasandi

**• Alobin neskak (Urasandin)111**
**10:30** [kas Laino Pilar A
**11:15** Ikas Trumoi - Pilar **B**
**12:00** Urasandi-Ikas Txingor

**ESKURALOIA**

**• Infantil mutilak (Kiroldegian)** ffi
**10:39** Ikas Bolita - Pilar A
**11:15** Pilar - Perraubekoak **(Kadeteak)**
**12:00** Basati - Ikas Axelko

**• Infantil neskak (Kiroldegian)**
**9:00** Ikas Gorribeltz - Ikas Spanky
**9:45** Pilar A Ikas Trol

# 56 elgoibartarrek korritu zuten Behobia-Donostia lazterketaii

## lazko partaidetza kopurua gainditu dute elgoibartarrek

Sekula baino jende gehiagok hartu du parte Behobia-Donostia lasterketan eta elgoibartarren kasuan ere, berdin gertatu da. **laz 47** lastekari elgoibartar izan ziren Behobia-Donostian eta aurten, berriz, 56 izan dira. Jose Antonio Ruiz gaztea izan da helmugara iritsi den lehen elgoibartarra denbora bikaina egin duelarik. Hala ere, jakin dugunez, **ia** elgoibartar guztiek hobetu dituzte euren markak. Zorionak denoi.



*Autobusean joan ziren elgoibartarrak lasterketa hasi aurretik.*

## CENrAITZAK

**Futbola**

**Haundi 1-** Zaragoza 1
Elgoibar **4 -** Urki **0 (2.erreg.)**
Eibartarrak **D -** Pedrusko **3 (2. erreg.)**
**San Inazio 0 -** Elgoibar **2 (Oho. jub.)**
Elgoibar 1 - Aurrera **1 (Kad.)**
Elgoibar **4 -** Antiguoko **2 (Inl.)**
Gernika **2 -** Elgoibar **3 (Neskak)**

**Eskubaloia**

U rola **4 -** Unceta **Elg.17 (Kad. nes.)**
Pagoaga Elg. **33 -** Arrasate **5 (Jub. nes.)**
Legazpia **26 -** Elgoibar **24 (Seniorrak)**

**Areto futbola**

Elgoibar **2-** Boulevard **6 (1. maila)**
Elgoibar **2 -** Madaya **1 (Auto.)**

## AGENDA

**Futbola,** Mintxetan

**Lanmbat, 15**
**12:00** Elgoibar - Eibartarrak **(Neskak)**
**16:30** Elgoibar- Aurrera **(2.erreg.)**
**Igandea, 16**
**12:00** Elgoibar - Almen (1. **jub.)**
**16:30** Elgoibar - Alaves **(Oho. jub.)**

**Eskubaloia,** Kiroldeclan

**Larunbata, 15**
**16:00PneumaxElg.** - Trapagaran **(Kad. mut.)**
**17:30** Tecnomeca Elg. - Trapagaran **(Jub. mut.)**
**19:00** Pagoaga Elg. - Leizaran **(Jub. nes.)**
**Igandea, 16**
**10:30** Unceta - Zestoa **(Kad. nes.)**
**12:00** Elgoibar - Hernani **(Seniorrak)**

KA IA

| Izena | Denbora Postua/Kateg, | Izena | Denbora Postua/Kateg, | Izena | Denbora Postua/Kateg, |
|---|---|---|---|---|---|
| 1-Jose Antonio Ruiz | 1:11:37 (34 B) | 21-Abel Irizar | 1:32:32 (862 B) | 41-Aitzol Garmendia | 1:48:23 (225 A) |
| 2-*Iñaki Jaio | 1:12:14 (56 C) | 22-Alberto Agirreazaldegi | 1:35:15 (429 D) | **42-Constan** Nuñez | 1:50:04 (2346 C) |
| 3-Danel Bastida | 1:15:46 (106 B) | 23-11ligo Belaustegi | 1:36:27 (1331 C) | 43-Francisco Iglesias | 1:50:12 (270 F) |
| 4-Martin Dominguez | 1:16:44 (129 B) | 24-Maria Eugenia Gonzalez | 1:38:11 (14 M) | 44-Jabier Agirrebeña | 1:51:08 (2413 C) |
| 5-Tomas Arrieta | 1:19:18 (214 B) | 25-Tomas Gonzalez | 1:38:14 (510 D) | 45-Izaskun Estibariz | 1:51:09 (58 M) |
| 6-Javier Fernandez | 1:19:45 (226 B) | 26-Edu Sanz | 1:38:50 (1242 B) | 46-Guillermo Baz | 1:53:03 (1965 B) |
| 7-Imanol Kapanaga | 1:20:20 (247 B) | 27-Eduardo Uribe | 1:39:45 (1285 B) | **47-Miguel** Parada | 1:53:12 (1966 B) |
| 8-Ekaitz Isasi | 1:22:28 (330 BO | 28-Borja Uriarte | 1:39:50 (1291 B) | 48-Andres Alberdi | 1:53:18 (667 E) |
| 9-Asier Arrieta | 1:26:02 (601 C) | 29-Gaizka Argarate | 1:40:14 (1622 C) | 49-Felix Ezkurra | 1:53:25 (1969 B) |
| 10-Iffigo Glaria | 1:26:03 (503 B) | 30-Itligo Ansola | 1:42:57 (1838 C) | 50-Hodei Alkorta | 1:53:28 (2528 C) |
| 11-Iñigo Etxaniz | 1:26:23 (617 C) | 31-Jose Manuel Fernandez | 1:43:04 (1512 B) | 51-Iñasio Garmendia | 1:53:34 (671 **E)** |
| 12-Isaak Bergaretxe | 1:26:34 (634 CO | 32-Fernando Bautista | 1:43:05 (1513 B) | 52-Ana Casquero | 1:54:50 (165 L) |
| 13-Santiago G. Alconada | 1:27:09 (220 D) | 33-Inazio Izagirre | 1:43:07 (701 D) | 53-Eduardo Castilo | 1:58:49 (293 A) |
| 14-Pilar Arriola | 1:27:22 (12 K) | 34-Andoni Gurrutxaga | 1:43:42 (1901 C) | 54-Jose Igancio Perez | 2:00:44 (1141 D) |
| 15-Francisco Frias | 1:28:15 (248 D) | 35-Pilar De La Lama | 1:45:34 (36 M) | 55-Andoni Etxeberria | 2:03:20 (2846 C) |
| 16-Iñaki Izagirre | 1:29:41 (711 B) | 36-Eduardo Santos | 1:46:16 (2099 C) | 56-Ismene Fulgencio | 2:04:03 (202 K) |
| 17-Asier ' Orbea | 1:30:01 (730 B) | 37-Pablo Barrenetxea | 1:46:22 (1667 B) | 57-Dorleta Arozena | 2:04:04 (203 K) |
| 18-Arkaitz Irureta | 1:30:41 (767 B) | 38-Urtzi Alkoeta | 1:46:56 (2141 C) | | |
| 19-Imanol Cerdeira | 1:32:30 (860 B) | 39-Mikel Arregi | 1:47:08 (1698 **B)** | | |
| 20-Ion Galarraga | 1:32:31 (861 B) | 40-Ion Gurrutxaga | 1:48:21 (223 A) | | |

* Jaioren izenarekin Jesus Larrañaga mendarotarrak korritu zuen.

# RI 2L

## Eskimalekin ametsetan

Eguraldi aldaketak gorputza bortizki astintzen duen bitartean, atarian daukagun neguaren aurrean, belarriak izozturik mantenduko dizkigun diskoen aukeraketa bat egitea izan da gure gaurko artikuluaren oinarria. Bakardadea, tristnra edo zentzumenak isola ditzakeen zerrenda bat aurkezten dizuegu jarraian, zuen gau jelatuak deseroso pasa ditzazuen.

1- "Atiese therfore" - PALACE
2- "Spiderland" - SLINT
3- "Red house painters" - RED HOUSE PAINTERS
4- "After murder park" - THE AUTEURS
5- "White birch" - CODEINE
6- "Doctor come at down" - SMOG
7- "Indivisible" - LUNGFISH
8- "Ble moods of..." - SPAIN
9- "O.K. computer" - RADIOHEAD
10- "Durnmy" - PORTISHEAD



# Oreretako Patxi Gallego izan da Kokoek antolatutako komiki lehiaketako irabazlea

### Euskarazko komiki onena Algortako komikigile batena izan da

Elgoibarko Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako V. Komiki Lehiaketako sariak banatu ziren pasa den domeka egurdian. Kokoe Elkarteko kideek osaturiko epaimahaiak lehen saria Oreretako Patxi Gallegori ematea erabaki zuen "Ixildu Gilipollas" lanarengatik. Patxik 100.00 pta. jaso ditu irabazlea izateagatik. Bigarren saria Getafeko Jose M. Serranoren "Diario de un justiciero" lanak irabazi zuen. "Corathn de plastilina", Algortako Borja Cresporen lana izan zen hirugarren saritua. Euskarazko komiki onenari akzesita Algortako Koldo Serraren "Nire terrore gogokoenak" lanarentzat izan zen. Ikuslegoak, berriz, Arteagako Francisco Javier Etayoren "Africa garbia" komikia saritu zuen.





*Goiko argazkian Kokoe Elkarteko kideak sari banaketa ekitaldian. Eskumako argazkian, Patxi Gallego, irabazlea.*

## • Herri Eskolako G. mailako ikasleak Murtzian izan dira "Eskola esker

Herri Eskolako 6. mailako 15 ikaslek astebete pasatu dute Murtzian beste herri batzuetako ikasleekin batera. Eskola Ibiltariaren programaren barruan Murtzia ezagutzeko aukera izan dute oraingoan; iaz esaterako, Sala-Inancan izan ziren. Murtzian egon diren egunetan bertako nekazaritza, kontserba fabrikak eta inguruak ezagutzeko aukera izan eta beste herri batzuetako ikasleekin elkarbizitzen ikasi dute. Argazkian, Herri Eskolako ikasle eta irakasleak beste herri batzuetako neska-mutikoekin.



# Crara jt<aPi:?ti

## MIKRO/ViELIJZ,MUKOA - 20 URTE

**1.-Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea?** - Alde onak eta txarrak dauzka baina merezi dau. Eta Elgoibarren bizitzia ere bai.

**2.-Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin?** – Berak nahi baldin badau eta oso gaizki badao, bai.

**3.-Hil eta gero?** - Salda bero. Kaja baten Olasora eta punto.

**4.-Lehenengo ni eta gero besteak.** - Beti pertsona berdinak badiaude lelengo, egunen batian izan biharko naiz ni lelengo eta gero bestiak, ez?

**5.-Nori kontatzen dizkiozu arazoak?** Lelengo laguneri eta gero etxekueri.

6.-Zein **da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?** - Eskuak zikindu gabe dirua irabaztia, lanbide komodo batian. Eta biziva, babak odolostiakin jatia.

**7.-Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik?** Ez gehixegi. Hala ere eman izan dot botua baina alfer xamarrik.

**8.-Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera?** – Normalian ez naiz juten baina azkena intsumisivan aldekua izan zan.

**9.-Euskalduna naiz eta harro nago?** - Bai, harro nao.

**10.-Zerk galarazten dizu loa?** - Ezerk ere ez. Azterketak ere ez. Oso ondo itxen dot lo.

**ll.-Gaztetxean izan al zara?** Bai eta "de lujo" dao.

**12.-Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?** Gehixegi ze eurak gauzak modu batera eitxeko esaten diatenian, nik nere erara eitxen ditxut, nahiz eta ez izan biderik egokixena.

**13.-Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?** – Neretzako onena nahi dutela. Eta gutxien gauzak zelan ein bihar ditxuten esaten ibiltzen diazela.

**14.-Laguntzen al duzu etxeko lanetan?** - Apenas. Gauza bat eitxeko esaten diatenian pelmada haundixa eman bihar izaten diate.

**15.- Alkoholik gabeko jairik?** Ondo pasatziak ez dauka alkoholakin zerikusirik. AIkoholik gabe ondo pasau **leike** eta alkoholakin ere bai.

**16.-Irakurri duzun azken liburua?** - Euskarazko bat izan zala uste dot, jun zan urtian.

**17.-Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?** Sexua mai tasunakin.

**18.-Birjinitatea traba ala bertutea?** Ez bat ez bestia. Birjinidadiak ez dauka beste munduko garrantzirik.

**19.-Homosexual batek maite zaituela esango balizu?** – Puntazo bat izango litzake. Homosexuala ez naizela esango nioke eta lagunak izaten jarraitxuko genduke, ezer gertau izan ez balitz bezela.

**20.-Sinesten al duzu betirako maitasunean?** – Sinistu biharko, ez?





**OILIS TFIBIERWT**

**Olaso industrialdea, 15**
**Tel: 74 31 85**

**-EGUNIKO MENURK-**
**-IRRUNORTETRN-**
**Rabak • Olagarroa • Fritoak**
**-GF1UEZ-**
**Menu ekonomikoak eta plater konbinatuak**

• Meriendak, haurrentzakn meriendak, afariak, luntnak, banketeak...
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKR EZRZU RURREKONTUR
I NOLRIal KONPROMEZURIK GRBE!

**Ordutegia:** Rstelehenetik ostiralera 7:08-22:30
larunbatetan 9:130etatik aurrera

# INTERESEKO TELEFONOAK

| OSASUNA | |
|---|---|
| Anbulategia: | |
| Larrialdiak | 461111 |
| Txanda hartzeko | 743354 |
| Planning-a | 742950 |
| Alkohohko Anonimak.. | 740385 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 464622 |
| Gurutze Gorria | 743864 |
| Mendaroko Ospitalea | 756264 |
| Odol Emaileak | 743936 |

| GARRAIOAK | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 740442 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 740898 |

| UDALA | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 744366 |
| Udal Kirol Patronatua | 744415 |
| Kultura Zerbkua | 742158 |
| Mendaroko Udala | 756100 |
| Ongizate zerbitzua | 741008 |
| Udaletxea | 741050 |
| Udaltzaingoa | 741394 |

| BESTELAKOAK | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 741626 |
| Kiroldegia | 744415 |
| Kontsumo Bulegoa | 743088 |
| Libu rutegb | 743525 |
| Musika Eskola | 742145 |
| Mintxeta | 744315 |
| Parrokia | 740842 |
| Postetxea | 741547 |
| Gaztetxea | 741357 |

| HIRUGARREN ADINA | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 740296 |
| Zaharren Biltokia | 740526 |

| IKASTETXEAK | |
|---|---|
| Haur Eskola | 74 21 41 |
| Herri Eskola | 74 08 79 |
| I.M H. | 74 41 32 |
| Herri Institutua | |
| Arre itu rre | 74 02 67 |
| Ezenarro (Meka) | 74 44 80 |
| I kastola | 74 44 41 |
| Pilar ñcastetxea | 74 13 31 |

| KOMUNIKABIDEAK | |
|---|---|
| BARREN | 74 41 12 |
| El Diario Vasco | 74 40 73 |
| El Correo Español | 74 10 82 |
| Egin | 10 84 21 |
| Zazpiki irratia | 74 34 74 |

## 14 ostirala

22:15 ZINE KLUBA
"El ogro"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 1 larun ata

10:30 KARAKATERA IV. IGOERA
Irteera Plaza Handian
Antolatzaileak: Urgazi eta Morkaiko

19:45 UDAL TXISTULARIEKIN DANTZA SAIOA
Udaletxeko arkupeetan

19:30-22:15 ZINEA
"Poder absoluto"

## 16 igandea

16:30 ZINEA
"Wallace and Gromit"

19:30-22:15 ZINEA
"Poder absoluto"

## 17 astelehena

22:15 ZINEA
"Poder absoluto"

## 18 asteartea

19:30 HITZALDIA
Gaia: "Umeengandik ikasiz"
Hizlaria: Mauri Unturi pediatra
Kultur Etxean
Antolatzailea: Errotatxo

## asteaz e n a

19:00 HITZALDIA
Gaia: Ixo!...Egualdixa!
Hizlaria: Pello Zabala
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## 20 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Que nada nos separe"
Antolatzalleak: Errotatxo eta Ongarri Zine Kluba

## 21 ostiraia

19:00
MUSIKESKOLAKO GAZTEEN BANDAREN KALEJIRA

19:30
NUSIKESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA
Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"Volcano"

22-30 ANTZERKIA
Taldea: Tunantes del Norte
Antzelana: "Soo bitxo"
Gaztetxean
Antolatzailea: Errotatxo

11 NE A



Zuzendaria: Clint Eastwood
Antzezleak: Clint Eastwood, Gene Hackntan, Ed Harris.

### Poderabsoluto

Luther (Clint Eastwood) lapur profesionala da. Bere lanean onena. Erretiratu aurretik bere bizitzako lapurretarik handiena prestatzen du: Cariben oporretan dagoen aberats baten etxean Iapurreta egitea. Etxe barruan dagoela, aberatsaren emaztea ustekabean itzultzen da eta hilketa bat ikusten du. Hiltzailea EEBBetako presidentea izan daiteke.

### • Trikitia ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak eta Haritz Dantzari Taldeak trikitia ikastaroa antolatu dute hilaren 15ean hasita. Klaseak Kiroldegian izango dira, larunbatero, goizeko 10etatik 11:30era bitartean. Ikastaroak hilabete eta erdiko iraupena izango du. Bazkideentzako prezioa 2.300 pta.koa da eta ez direnentzat 3.300 pta. Izena emateko KiroIdegira deitu (74 44 15).

### • Pello Zabalaren hitzaldia eguraldiari buruz

Elgoibarko Izarra Elkarteak antolatuta, Pello Zabala. Arantzazuko fraileak eguraldiari buruzko hitzaldia emango du datorren asteazkenean, hilak 19. Eguraldiari buruzko hainbat xehetasun eta bitxikeria kontatuko ditu Arantzazuko eguraldigizonak. Hitzaldia iluntzeko 19:00etan izango da Kutur Etxeko hitzaldi gelan.

### • Eskulan ikastaroa antolatu du Haizeak

Haizea Emakume Taldeak 3 hilabeteko iraupena izango duen eskulan ikastaroa antolatu du "papel matxe" teknikari buruz. Ontziak, opariak, ispiluak etab. egin ahal izateko oinarrizko teknikak irakatsiko dira. Klaseak asteazkenetan izango dira, goizez edo arratsaldez, eta bi orduko iraupena izango dute. Izena emateko 74 38 29ra deitu 19:00etatik 20:00etara (M. Jesus).



### • Karakatera IV. igoera izango da bihar, hilak 15

Bihar, larunbata, Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako Karakatera Igoeraren IV. edizioa izango da. Atureko hiru urteetan bezala, Plaza Handian emango zaio hasiera frogari. Irteera ordua goizeko 10:30ean izango da. Hala ere, iaz egin zen bezala, aurten ere, oinez modu lasaiagoan igo nahi dutenentzako irteera ordu erdi lehenago izango da. Hiru kategoria ezberdinetan emango dira sariak: sailkapen nagusia, emakumezkoak eta edadetuak. Igoeraren markarik onena iaz lortu zuen Jose Mari Fern'gndez elgoibartarrak. Azken bi edizioetan lehia gogorra egon da Fernaidez eta Juan Aldai eibartarraren artean, urtero aurreko marka hautsiz. Aurtengoan ere, pentsatzekoa da marka berririk egongo dela.

### • Soldaduzkako zozketen aurkako zonaldeko manitestazioa

Bihar, hilak 15, soldaduzkara joateko zozketen aurkako bailarako manifestazioa egingo da Arrasaten. Elgoibarko Talde Antimilitaristako kideak arratsaldeko 18:00ak aldera Plaza Handian elkartuko dira Arrasatera abiatzeko asmoz. Beraz, joan nahi duena ordu horretan Plazan egon dadila eskatu nahi dute Antimiliek. Manifestazioa Arrasateko Sebero Altube Plazan hasiko da arratsaldeko 19:00etan.

## GARRI kluba



### Que nada nos separe

(Errotatxok aukeratutako pelikula)
Tran fusio baten ondorioz HIESa hartu duen mutiko bat baztertuta bizi da. Auzoko mutikorik bihurriena HIESa duen mutikoaren lagun egiten da. Honela, HIESarengatik baztertuta bizi den mutikoaren bakardea arintzen saiatuko da. Baina bere gurasoek ez dute ondo ikusten gaixotasuna duen mutikoare adiskidea izatea.

Zuznedaria: Peter Horton
Antzezleak: Joseph Marzzello, Brad Renfo, Annahella Sciorra.

## 11 21filDIE

**FARMAZIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 15 | Etxeberria* (Santa Ana) | Escala |
| 16 | Etxeberria* (Santa Ana) | Escala |
| 17 | Yudego | Anduaga |
| 18 | Bidasolo | Zabaleta |
| 19 | Etxeberria (Santa Ana kalea) | Etxeberria |
| 20 | Etxeberria* (Errosario) | Escala |
| 21 | Bidasolo | Bidasolo |

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabat, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

**OKINDEGIA**

16 igandea Zabaleta


ETXERAKO GAUZA GUZTIAK
ETXEBERRIA
1/4
bodum
bodum
ETXEBERR1A
Etxeko tresneria - burdindeeia
Gannendl-Gain zlg. (Landeta Auzoa)
AZPEITIA • Tel. 81 21 46

# GREMIOAK

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

**JUARISTI**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana,18
☎ 74 29 94

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

**LUIS F. BERISTAIN**
Sukaldeak - ateak - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

**JAVI**
Erretxindi, 1
☎ 74 14 80
☎ 908 77 29 32

**JUAN CARLOS S.L.**
Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

**ONGI**
Urasandi, 8
☎ 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 75 50 62
☎ 907 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

## PINTURAK

**PINTURAS ELGOIBAR FERMIN**
Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

**JOSE PINTURAK**
San Bartolome, 28
☎ 74 12 55
☎ 929 44 23 14

## IGELTSERITZA

**KIDEOK S.L.**
San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ 74 34 18

**PATXILLO**
Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

**IPINTZA**
Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

**BETI ARGI**
Errosario, 6
☎ 74 16 44

**URZELAI**
Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

Grem'iroven gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 74 37 04